

Larretxea favoritotzat jotzen dute apustuek

Igandea da egun handia. Miel Mindegia, 60 urte. Donato Larretxea, 49 urte. Tolosako zezenplazan, 20 kanaerdiko prest, mozten azkarrena nor izango den ikusteko zain. Osagaiek argi erakusten dute hau mendeko desafioa dela: aizkolari onenatariko bi, exigentzia handiko froga, ikusmin galanta (3.000 sarrerak salduta dagoeneko) eta, nola ez, apustuen saltsa, herrikiroletako lehiaketen postura tradizionalen etxea den Tolosan. Gainera, berdinketa haustea ere dago jokoan, izan ere, badira hamar urte baino gehiago Mindegia eta Larretxeak beste bi desafio egin zituztenetik, bakoitzak bat irabazi zuelarik. Ezin da gehiago eskatu.

Kantabriko taberna, joan zen maiatzean aizkolari biek apustua itxi zuten leku bera, animatua egongo da ikuskizuna hasi aurreko orduetan, dudarik gabe. Gainera, herrikiroletako ekitaldietan betidanik egon ohi den giro politikak beste bizigarri bat du joan zen urteko udatik, bertan **Kiroljokoa Makina** jarri zen eta. Beraz, zaletuek desafio handirako apustuak egin ditzakete Kantabrikan.

Kiroljokoaren apustuak erreferentzia ona dira zaletuen arteko joera ikusi eta bere ustetan desafioa nork irabaziko duen ezagutzeko. **Kiroljokoak** apustua Larretxearen alde kaleratu zuen diferentzia txikiarekin, jokaturako euro bakoitzagatik 1,75 ordainduz eta Mindeagiarengatik 1,85 emanaz. Egunak igaro ahala, Larretxearen aldekoak gogotsu egiten ari dira izan ere, gaur osteguna bere alde 1,60 ordaintzen da eta Mindegiaren alde 2. Jarraituko du Larretxeak apustuen buru izaten lehia hasi aurreko orduetan? Erantzuna, **Kiroljokoaren** edozein apustu-gunetan.

Oharra: Kuotak aldatu egin daitezke. Gutxieneko apustua euro batekoa da eta gehienezkoa 100 eurokoa.

Kiroljokoa, herrikiroletako katalogo zabalena

Kiroljokoak herrikirolen aldeko apustua egiten du aizkolari, harrijasotzaile, sokatira, idi eta gizon probak edota segalari txapelketa eta lehia nabarietan, eta noski, desafioetan, posturak eskainiz. Herrikiroletako apustuek tradizio handia dute gurean eta orain **Kiroljokoak** Euskal

Autonomi Erkidegoko zaletuei gerturatu egiten dizkie, 400 puntu baino gehiago dituen bere apustu [sarearen bidez](#).

KIROLJOKOA KIROLAREKIN BAT

Kiroljokoak herri-kirolen alde egiten duen apustua aizkolaritza txapelketen eta beste zenbait ekitaldiren antolatzaile den **Egur Sportekin** duen babesletza akordioan ere nabarmentzen da. Laguntza hau **Kiroljokoak** kirolarekin, eta bereziki gure inguruko txapelketa eta kirol lehiekin, duen konpromezuarekin bat dator.

Informazio gehiago:

Maribel San José
msanjose@kiroljokoa.com
TEL: 688 881 709